

**Garuna, sistema informatiko baten buru**

Meagher izeneko doktorea, orain dela zortzi urte guztiz elbarriturik geratu zen gaixotasun degeneratibo baten ondorioz. Pertsona hau izan da, hain zuzen ere, sistema informatiko bati konektatu zaion lehenena. Gizon honek ezin du bere gorputzeko organorik mugitu, baina garun-ahalmena oso-osorik du. Hala ere, sistema informatiko hau bere etxean ezarriz geroztik, gizon honek kafe-makina, ekipo estereoa edo telebista piztu ditzake; telefono-zenbaki bat markatu edo pertsianak igo eta jaitsi ere bai. Baina nola? Ordenadore-monitore bati begiratu. Monitorea 64 errekoadroan zatiturik dago, hauetan letrak nahiz programatzeko oinarritzko aginduak azaltzen direlarik. Sistemak honelaxe funtzionatzen du: gaixoak, nahi duen hitza dagoen monitore-errekoadroari begiratzen dio. Begiek errekoadroaren argitasuna jaso eta garunera bidaltzen dute. Hemen uhin bat sortzen da eta hau, garondoan txertatu zaizkion elektrodo batzuek jasotzen dute. Anplifikadore batek uhina amplifikatu ondoren ordenadoreari bidaltzen du eta ordenadoreak monitore batean hitza idatzia erakusten du edo bidali zaion agindua betetzen du.

Sistema hau Erich Sutter fisikariak asmatu du eta arrakasta handia izan dezake elbarrien munduan.

**Ordenadore bidezko gorputz-formaren analisia**

Erresuma Batuko "Axis Software Systems" enpresak garatutako sistemaren bidez giza gorputzaren bidez giza



gorputzaren forma eta proportzioak analizatu eta disko batean gorde daitezke. Sistema hau txartel grafikoa duen PC bateragarri batean erabil daiteke. Bost funtzio ditu: datuen bilketa, ereduaren eraketa, ereduaren neurketa, ereduaren manipulazioa eta datu-base gisako erabilera.

Datu-bilketa egiteko argi-lerroak proiektatzen dira gorputzaren gainera eta irudia argi-iturriarekiko posizio eszentrikoan dagoen bideo-kamera baten bidez hartzen da. Kamerak hartutako irudia era digitalean tratatzen da eta argi-lerroek gorputza ukitzerakoan izandako aldatetari esker konformazio tridimentsionala lortzen da.

Datu-base indexatua edukita, askoz ere azkarrago aztertzen dira irudiak. ☐

**EUSKAL  
ADITZ  
LAGUNTZAILEA  
(Softwarea)**

*Ordenadorea erabiliz,  
aditzarekin jolastuz, milaka  
ariketa egin ditzakezu*

**JADANIK  
KALEAN**